



Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa

VI. plangintzaldia
(2018-2022)

2018ko azaroa



AURKIBIDEA

1. Oinarri orokorrak

- 1.1. Euskararen Bidegorria 13-17
- 1.2. Euskara-planak egin beharra
- 1.3. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzkoa
- 1.4. 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena
- 1.5. EAEko herri-administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak

2. Euskararen erabilera normalizatzeko plana 2019-2022 aldirako

- 2.1- Indarraldia
- 2.2- Departamentu elebidunak, euskarazkoak eta jendaurreko lanpostuak
- 2.3- Hizkuntzazko irizpideak
 - a) Zerbitzu-hizkuntza
 - i. Erakundearen irudia
 - ii. Herritarrekiko harremanak
 - b) Lan-hizkuntza
 - i. Barne-harremanak
 - ii. Langileen kudeaketa
 - iii. Kanpoko harremanak
 - iv. Kudeaketa-sistema
- 2.4- Eranskina: 2019-2022 plan estrategikoa



1- OINARRI OROKORRAK

1.1- Euskararen Bidegorria 2013-2017

- V. plangintzaldian (2013-2017), Lasarte-Oriako Udalean garatu zen euskara-planari *Euskararen Bidegorria 2013-17* deitu zitzaion. Bost urte horretan landutakoaren emaitza *Euskararen Bidegorria 2013-17. V. Plangintzaldiaren ebaluazioa* dokumentuan dago jasoa, eta kontuan hartu da VI. plangintzaldia diseinatzerakoan.

1.2- Euskara-planak egin beharra

Lasarte-Oriako Udalak, herri-administrazioetako erakunde den aldetik, euskararen erabilera normalizatzeko plana onetsi eta gauzatu beharra du, honako hauen arabera:

- *Lasarte-Oria herrian eta udalean euskararen erabilpena normalizatzeko arauei buruzko udal-ordenantzaren 6. artikulua.*
- Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretu apirilaren 15ekoaren lehen atalburuko xedapen orokorretako 4. atala.

1.3- 2/2016 Legea, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzkoa

Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera, euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik, erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da. Eta horretarako, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.

Legeak Udalei ematen dien hizkuntza-politika egiteko markoaren adibide batzuk izan daitezke Legearen beraren hitzaurrean jasotzen diren ondorengo puntu hauek:

- *“Hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura- eta hizkuntza-eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde, amarez eta euskal toki-administrazioa benetan euskalduna izan ahal dadin, horrek berarekin dakarren guztiarekin, **hala nola den euskara laneko ohiko hizkuntza izan ahal izatea, euskara jakitea mugatu gabe, askotan gertatzen denez, tokiko enplegu publikora iristeko eskakizun formal huts izatera.** Horregatik, toki-administrazioak etsenplu eta gidari izan behar du euskara erabat berreskuratzearen arloan, eta horretarako beharrezkoa da administrazio horrek apustu argi bat egitea bere jarduna gero eta gehiago euskalduntzen joateko.*
- *Hala, lege honek, zeinak uneoro errespetatzen baitu toki-araubidea, aldeztu du, kasuan kasuko toki-erakundeak **hala erabakitzen badu, euskara erakunde horretako lan-hizkuntza izatea.** Era berean, modu berariazko, funtsezko eta zuzenean aurreikusten du udalek eskumenak edukitzea euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan.*



- [...] euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan –karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsia izan ondoren–, **non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen «hizkuntza erregionalen edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak, hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hiztunekiko diskriminazio-egintzatzat».**
- Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta, beraz, baita bertako toki-erakundeetan ere. Alde horretatik, jardueretan zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da toki-erakunde horietan, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuta, eta erabilera normala eta orokorra izango du bertan. Berariaz adierazten da, gainera, euskaraz egin daitekeela egintza eta izapide oro.
- **Toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak euskaraz idatzi ahal izango dira.** Ahalmen hori baliatu ahal izango da –aipatu berri diren kasuetan–, baldin eta, toki-erakundearen barruan, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein kideren eskubideak urratzen ez badira.
- Lege honen 6.2 artikuluan jasotako aurreikusenez gain, toki-erakundeek beren jarduerak euskaraz egitea ahalbidetze aldera, **hautetsiek** hizkuntza ofizialetan behar besteko gaitasuna (mintzatuaren eta idatziaren ulermena) izatea sustatuko da.”

1.4- 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

“18. atala.- Entitate bakoitzak 17. atalean (gutxieneko helburuak ezartzeari buruzkoan) ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza-politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

- a) “(...) lanpostu bakoitzari zein hizkuntza-eskakizun ezarri zaion, eta, hala badagokio, derrigortasun-data ere zehaztuko da.
- b) “Entitatearen helburuen arabera, zenbat administrazio-atal elebidun eta euskarazko sortuko diren (...)”
- c) “(...) zein neurri hartuko den administrazio-atal elebidunek, eta batez ere, euskarazko administrazio-atalek aurrera egin dezaten (...) zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruetan¹:
 - Administratuekiko eta gainerako erakundeekiko ahozko zein idatzizko harremanetan
 - Jendaurreko ekitaldietan
 - Argitalpen-arloetan
 - Hizkuntza-paisaian
 - Oro har, hizkuntza-helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan.
- d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak.”

¹ “c” eta “d” atalak “Lasarte-Oriako Udalaren hizkuntza-irizpideak” atalean daude sartuta



1.5- EAEko herri-administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak

Lasarte-Oriako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. plana garatzerakoan, Hizkuntza-Politikarako Sailburuordetzak berriaz emandako irizpide orokorrak kontuan izan nahi dira. Besteak beste:

- Lidergoa. Hizkuntza-politika (ikuspegi orokorra eta eguneroko praktika) alkatetzatik eta gobernu-taldetik zuzentzea, lidergo-kateak bultzatuz.
- Eredua. Udalerrian egin daitekeenaz gain, lehenasuna Udalaren beraren eta arduradun politikoen hizkuntza-praktikan (laneko eta zerbitzuetako hizkuntzan) jartzea.
- Zehar-lerroa. Hizkuntza-politikak zeharkako aplikazioa izatea udaleko departamentu guztietan, departamentu bakoitzeko arduradunak departamentu horren hizkuntza-politikaren arduradun eginez.

2- LASARTE-ORIAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA 2019-2022 ALDIRAKO

2.1 Planaren indarraldia

Plana, 2022an amaitzen den VI. plangintzaldirako onartzen baldin bada ere, indarrean egongo da berau ordeztuko duen plan berria onartu bitartean.

2.2 Departamentu elebidunak, euskarazkoak eta jendaurreko lanpostuak

EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilerearen normalkuntza-prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 11. atalak ezartzen du, administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko duela zein den derrigorrezko eskakizunen ehunekoa. Lasarte-Oriaren kasuan, % 54,5a da indizea 2018-2022 plangintzaldirako.

17. atalean ezarritakoaren arabera, erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea % 45etik % 70era bitartekoa denean, administrazio-atal elebidun izendatuko dira:

- Jendaurreko administrazio-atalak (udalaren kasuan, lanpostuak)
- Gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten atalak.
- Gizarte-izaerako atalak
- Izaera orokorreko atalak.

Administrazio-atal elebidun izateak zera esan nahi du: "Beren zereginak Euskal Autonomia Elkarteko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak."

Euskarazko administrazio-atalak, berriz, beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak dira.



Atalaren izaera	Atalak	Izendapen linguistikoa
Gizarte-mailakoa	KIROLA	Elebidun/Euskarazkoa
	KULTURA	Elebiduna
	EUSKARA-ZERBITZUA	Euskarazkoa
	ZERBITZU SOZIALAK	Elebiduna
	UDALTZAINGOA	Elebiduna
Orokorra	IDAZKARITZA	Elebiduna
	KONTU-HARTZAILETZA	Elebiduna
	DIRUZAINZUA	Elebiduna
	HIRIGINTZA	Elebiduna
Berezia	ZERBITZU MUNIZIPALAK	

Jendaurreko lanpostuak
Erregistroko administrari laguntzailea
Estatistikako administraria
Idazkaritzako administrari laguntzailea
Jakinarezlea
Zerbitzuetako administrari laguntzailea
Errentetako administrari laguntzailea (2)
Euskaltegiko administrari laguntzailea
Euskarako administrari laguntzailea
Gazte dinamizatzailea
Kulturako administrari laguntzailea (2)
Liburutegiko administrari laguntzailea
Liburuzaina
Zerbitzu sozialetako administrari laguntzailea (3)
Gizarte langilea (5)
Kiroletako administrari laguntzailea
Hirigintzako administraria (2)
Hirigintzako administrari laguntzailea
Udaltzaingoko administrari laguntzailea
Kobrantzako administraria (2)
Udaltzainak



2.3 Hizkuntzazko irizpideak

a) Zerbitzu-hizkuntza

I. Erakundearen irudia

- Errotulazioa. Idatzizko elementuak (errotuluak, kartelak, oharra...) bi hizkuntza ofizialetan jarriko dira:
 - Bi hizkuntzetan jarritako idatzizko elementuetan euskara nabarmenduko da, kokapenezko eta tipografiazko baliabideak erabiliz.
 - Euskara hutsean jarriko dira kasu hauetan:
 - o Antzeko grafia denean euskaraz eta gaztelaniaz
 - o Mezua piktograma bidez ulergarria denean
 - o Errotulua udaleko langileak soilik ibiltzen diren eremuan dagoenean eta ez duenean zailtasun tekniko berezirik
 - Zerbitzua 30 urtetik beherako herritarrei zuzendua dagoenean, kontuan izanik adin-tarte horretan euskaraz ulertzen ez duten herritarren ehunekoa oso txikia dela eta zerora hurbiltzen ari dela:
 - o Idatzizko elementuak euskara hutsean jarriko dira.
 - o Testuen alboan dagokion piktograma jarriko da.
- Argitalpenak, publizitatea, albisteak, jendaurreko ekitaldiak eta ikastaroak
 - Jendaurreko ekitaldiak

Lasarte-Oriako herrian eta udalean euskararen erabilera normalizatzeko arauetarako buruzko udal-ordenantzaren 8.11 atalean jasotakoari jarraituz, Udalak antolaturiko ekintza, hitzaldi eta abar euskaraz izango dira, salbu eta ekintza-motak, inguruneak edo entzuleek bi hizkuntzetan egitea eskatzen dutenean, euskarari lehentasuna emango zaiolarik.

- Udalak eskaintzen dituen ikastaroak eta antzeko zerbitzuak:
 - o 30 urtez beherakoei zuzenduak euskaraz izango dira.
 - o 30 urtez gorakoei zuzenduetan, ikastaroak euskalduntzeko programan definitutako metodologiaren arabera kudeatuko da hizkuntza, hau da, taldekideen hizkuntza-ezaugarrien arabera egokituko da hizkuntza-praktika, eta, horretarako, E, A, B eta C talde-tipologiak bereiziko dira:
 - E: Ikastaroa euskaraz eskaini da.
 - A: Ikasleen % 75-100ek ulertzen dute euskara eta ikastaroa euskaraz edo nagusiki euskaraz emango da.
 - B: Ikasleen % 50-75ek ulertzen dute euskara eta ikastaroa nagusiki euskaraz edo elebitan emango da.
 - C: Ikasleen % 0-50ek ulertzen dute euskara eta ikastaroa nagusiki gaztelaniaz edo elebitan emango da.



- Ingurune digitala (webguneak eta sare sozialak):
 - Lasarte-Oriako Udalaren titularitateko domeinua duten web-orri guztietan hasierako hizkuntza euskara izango da, eta aukera egongo da gaztelania hautatzeko.
 - Interneteko sareetako edukiak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira, eta departamentu bakoitza arduratuko da bere edukiak bi hizkuntzetan prestatuta egoteko prozeduraz.

II. Herritarrekiko harremanak

- Idatzizko komunikazioa:
 - Herritarrekiko idatzizko harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartuko dira, betiere herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz. Horretarako, honelakoa izango da eskabide-orrietarako hizkuntza-kudeaketa:
 - Bi eredu izango dira, bata euskaraz eta bestea elebitan.
 - Galdetu egingo zaie gai/espediente horretarako harreman-hizkuntzari buruz, eta egindako hautuaren arabera kudeatuko da harremanetarako hizkuntza.
 - Eskabide-orriaz bestelako harremanetan, herritarrak edo dagokion entitateak euskaraz jardutea hautatu duenean, edota haiek euskara hutsean igorritako idatzien erantzuna denean, euskaraz jardun beharko du Lasarte-Oriako Udalak.
- Ahozko komunikazioa:
 - Herritarrekiko aurrez aurreko nahiz telefono bidezko harremanetan, udaleko langileak LEHEN HITZA euskaraz egingo du beti, eta herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du.
 - Hartzaile jakin edo zehatzik ez duten ahozko harremanetan, lehenik euskaraz egingo da, eta gero gaztelaniaz.

b) Lan-hizkuntza

I. Barne-harremanak

- Barne-harremanak idatziz:
 - Udal barruan egiten diren komunikazio administratiboetan euskararen erabilera lehenetsiko da.
 - Lasarte-Oriako Udaleko intraneteko hasierako hizkuntza euskara izango da, eta aukera egongo da gaztelania hautatzeko.
 - Intraneteko sareetako edukiak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, eta departamentu bakoitza arduratuko da bere edukiak bi hizkuntzetan prestatuta egoteko prozeduraz.
 - Derrigorrezkoa izango da Hizkuntza Irizpide Adostuen txostena (HIA), zeinetan ezarriko baita zein hizkuntzatan idatziko diren prozedura administratiboetako dokumentuak. Irizpide nagusia da langileek ahalik eta dokumentu gehien



- euskaraz sortzea. Horretarako, ondoren zehazten diren parametroak hartuko dira kontuan:
- Herritarraren nahiz erakundearen hizkuntza-hautua.
 - Sortu beharreko dokumentuaren konplexutasuna.
 - Dokumentua sortzen eta jasotzen duten udaleko langile eta politikarien hizkuntza-gaitasuna.
- Langileak testuak sortzeko lana gero eta gehiago euskaraz egin dezan bultzatuko eta lagunduko da, gero eta laguntza gutxiago izateko ikuspegi batekin. Horretarako, itzulpenak eta zuzenketak kudeatzeko protokoloa definituko da, zeinen helburua baita langilea gero eta autonomoagoa izatea testu bat euskaraz sortzeari dagokionez.
- Barne-harremanak ahoz
 - Udalbatzarrak:
 - Aldibereko itzulpen-sistema izango denez, irizpide nagusia izango da zinegotziek beren interbentzioak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egitea, euskaraz egingo direlarik haien hizkuntza gaitasunak horretarako aukera ematen duenean.
 - Batzordeak:
 - Batzordekideen hizkuntza-gaitasunak horretarako aukera ematen duenean, batzordeak nagusiki euskaraz egitea izango da irizpide nagusia.
 - Irizpide nagusia betetze aldera, elebakar diren edo euskara-gaitasun mugatua duten batzordekideei hizkuntzazko prestakuntzarako nahiz trebakuntzarako aukera eskainiko zaie.
 - Baliabide informatikoak. Ordenagailu berrietan, euskarazko softwarea instalatuko da salbu eta langileen edota ordezkari politikoen hizkuntza gaitasunak beren funtzioak egoki betetzea eragozten dienean. (0811/2015 alkate-dekretua).
 - Udalak kontratatzen/sortzen dituen aplikazio informatiko berrietan, euskarazko bertsioa izatea bermatuko da.

II. Langileen kudeaketa

- Harrera protokoloa:
 - Kontratazio berrietako langileei, harrera protokolo baten bidez, Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak jakinaraziko zaizkie, hain zuzen ere, lanpostuarekin zerikusia dutenak.
- Laneko prestakuntza
 - Hizkuntzazko prestakuntza:

"Udalak bitartekoak ipiniko ditu enplegatuek eta ordezkari politikoek beren zereginak gero eta gehiago euskaraz egiteko behar duten euskarazko gaitasuna hobetu dezaten; alegia, euskara ere lan-hizkuntza izan dadin neurriren batean, progresiboki handiagoa izango den neurrian" ("Lasarte-Oriako herrian eta udalean euskararen



erabilera normalizatzeko araei buruzko udal-ordenantzaren” 6.5 artikulua, Udalbatzarrak 2015eko martxoaren 10ean egindako ohiko bilkuran onetsia).

Aldi berean aktibatu eta garatuko dira hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko prozesua eta tramiteetako dokumentuak euskaraz ere sortzeko hizkuntza gaitasuna eskuratzekoa, bermatua gera dadin hizkuntzazko prestakuntza prozesuan eskuratzen den gaitasuna trebakuntza bidezko erabilerari estuki lotua egongo dela.

III. Kanpo-harremanak

- Administrazioa:

- Honela dio Toki-Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 7. artikuluko 6. atalean:

“6.– Toki-erakundeek beren arteko harremanetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoekiko harremanetan euskara gero eta gehiago erabil dadin sustatuko dute; horretarako, adostasuna bilatuko dute, eta, edonola ere, hizkuntza ofizial bat nahiz bestea erabili ahal izango dute, beste hizkuntza ofizialerako itzulpenik aurkeztu beharrik izan gabe.”

Horren arabera, Lasarte-Oriako Udalak neurriak hartuko ditu:

- Euskarazko ataletan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Buruntzaldeko udalekin dituen harremanetan euskaraz izango dira.
 - Atal elebidunetan, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Buruntzaldeko udalekin dituen harremanetan euskararen erabilera progresiboki handituz joango da.
- Komunikazio instituzionala
 - Hedabideen aurreko ahozko komunikazio-jarduerak euskaraz egingo dira, salbu eta ekintza-motak, inguruneak edo entzuleek bi hizkuntzetan egitea eskatzen dutenean, euskarari lehentasuna emango zaiolarik.

IV. Kudeaketa-sistema

- Herritarrak eta zerbitzua. Hizkuntza-kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan integratzea
- Diru-laguntzak:
 - Lasarte-Oriako Udalaren “Diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailearen” “Onuradunaren betebeharrak” izeneko 10. artikulua araberako kudeatuko dira hizkuntzak (Lasarte-Oriako Udalbatzarrak 2017ko urtarrilaren 10eko bilkuran onetsia).



- Kontratu administratiboak:

"Lasarte-Oriako Udalaren kontratu administratiboetarako hizkuntzazko betebeharrak" ordenantzan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira hizkuntzak Udalak kontratatutako zerbitzuetan (Lasarte-Oriako Udalbatzarrak 2013ko uztailaren 9ko bilkuran onetsia).

- Langileak. Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea

- Derrigortasun data:

Jendaurreko lanpostu berrietan, harreman estrategikoak dituztenetan eta atal elebidunetako nahiz euskarazko lanpostu guztietan, igarotako derrigortasun data proposatuko du Udalak HPSra bidali beharreko proposamenean, beti ere 86/97 Dekretuaren 23. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera dagokion lanpostuaren ezaugarriak aztertu ondoren.

- Hizkuntza eskakizuna:

- Kontratazio berrietako lanpostuei dagokienez, Euskara Zerbitzuak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dagozkien derrigorrezko txostenak egingo dituzte hizkuntza eskakizunaren inguruan.
- Jadanik sortuta dauden lanpostuei dagokienez, lanpostu horiei esleitutako funtzioetan aldaketaren bat gertatu den kasuetan, Euskara Zerbitzuak hizkuntza eskakizuna aldatzeko aukera aztertuko du. Proposamen horretan, iraingitako derrigortasun data sartuko da aldaketa egin den plangintzaldiaren barruan, beti ere baldintza hauek betetzen badira:
 - Plaza hutsik egotea.
 - Plazaren titularrak akreditatua izatea dagokion hizkuntza eskakizuna.
 - Titularra akreditatetik salbuetsita egotea.

- Euskara-plana gauzatzea

2019-2022 Plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzeko, urteko kudeaketa plana egingo Lasarte-Oriako Udalak, eta bertan jasoko dira dagokion urtean abian jarriko diren ekintzak.

- Euskara planaren jarraipena

Bi ebaluazio-mota egingo dira:

- Urtekako ebaluazioa, hau da, dagokion urteko kudeaketa-planarena (Euskara-zerbitzuak dituen datu-baseetako informazioan oinarritua).
- Tarteko eta amaierako ebaluazioak (HPSk berariaz prestatutako galdetegieta oinarrituak).

2.4 Eranskina: Plan estrategikoaren ardatz, elementu eta adierazleen taula